

Koiuntura di-da batean

2017ko urria

Aurkibidea

1. Afiliazioa
 2. Langabezia erregistratua
 3. Inflazioa
 4. Konfiantza
 5. Nazioarteko merkataritza
 6. ELGEren aurreikuspenak
- Eranskina

1. Enpleguaren sorrerak erritmo onari eutsi zion hirugarren hiruhilekoan.

Gizarte Segurantzako afiliazioa %2,3 hazi zen irailean urte arteko tasan.

2. Irailean, langabeziak beherakada garrantzitsua izan zuen.

2016ko hileko berean baino 12.000 langabe gutxiago zenbatu ziren.

3. Erregaien igoerak %1,8ra eraman du abuztuko inflazioa.

Garestitze horrek garraioan eta etxebizitzan eragin du bereziki.

4. Industria giroak azken urteetako daturik onena erakutsi du.

Bai eskari zorroari bai ekoizpenaren joerari buruzko iritziaik baikorrak dira.

5. Nazioarteko merkataritza sendo hazi zen lehen sei hilekoan.

Europar Batasunak kanpoko salmentak hobetu zituen, baina barrukoak gutxitu.

6. Munduko ekonomiak indarra hartuko du epe laburrean.

ELGEk %3,5eko hazkundera aurreikusi du mundurako aurtien eta %3,7, berriz, datorren urtean.

EUSKO JAURLARITZA

OSASUN ETA EKONOMIA
SALA
Ekonomia eta Planifikazio Zuzendaritza




GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y ECONOMÍA
Dirección de Economía y Planificación

GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA


Enpleguaren sorrerak erritmo onari eutsi zion hirugarren hiruhilekoan

Gizarte Segurantzaren afiliazioa guztira
Urte arteko aldakuntza tasa




Gizarte Segurantzak argitaratu dituen iraileko datuek adierazten dute enplegu sorreraren erritmoak egonkor jarraitu zuela hirugarren hiruhilekoan. Izan ere, epealdi horretan %2,1eko batez bestekoa lortu zen, aurtengo lehen sei hilekoetako batez bestekoa berdinduz. Bereziki deigarria da iraileko emaitza ona (%2,3), abuztuko datuak (%1,9) piztu zituen zalantzak uxatzen dituelako. Afiliazioaren gorakada bereziki nabarmena izan zen gizonen artean, urte arteko aldakuntza tasa abuztuko %1,7tik iraileko %2,2ra igo zelako. Beste aldetik, emakumeen bilakaera egonkorragoa da, baina kolektibo horretan ere hobekuntza hauteman zen, abuztuan jasotako %2,2tik iraileko %2,4ra.


Gizarte Segurantzaren afiliatutako emakumeak
Urte arteko aldakuntza tasa




Gizarte Segurantzaren afiliatutako gizonak
Urte arteko aldakuntza tasa



Afiliazioa industrian
Urte arteko aldakuntza tasa



Afiliazioa zerbitzuetan
Urte arteko aldakuntza tasa



Afiliazioaren bilakaera ona EAEko ekonomiaren lau sektore nagusietan nabaritu da, laurek aldakuntza tasa positiboak eskuratu zituztelako. Bizitasun handiena zerbitzuetan hautematen da oraindik (%2,3), baina bai industriak (%1,7) bai eraikuntzak (%1,8) aurreko emaitzak hobetu zituzten. Bereziki esanguratsua da hezkuntza alorreko afiliazioaren gehikuntza (4.496 lagun), 2016ko irailean jaitsi egin zelako. Lehen arloko jarduerak ere nabarmen handitu zuten beren zifra (1.428 lagun), %10etik hurbil dagoen tasa batekin. Hala ere, litekeena da urte sasoiaren eragin iragankorra izatea, mahats eta bestelako uzten bilketak aurreratu izanak eraginda eta datozen hilekoetan konpentsatuko dena.

Gizarte Segurantzaren afiliatuta dauden lagunak


	2016eko iraila	2017ko iraila	Aldakuntza
AFILIAZIOA GUZTIRA	904.543	925.059	20.516
Industria manufakturgileak	170.209	173.037	2.828
Merkataritza	136.867	138.029	1.163
Osasun arloko jarduerak	90.901	93.391	2.491
Administrazio jarduerak	64.012	66.375	2.363
Ostalaritza	61.705	63.812	2.107
Hezkuntza	54.625	59.121	4.496
Eraikuntza	52.609	53.537	928
Lanbide jarduerak	52.415	53.472	1.056
Administrazio publikoa	46.117	46.185	68
Garraioa	39.254	40.391	1.137
Etxeko langileak	30.790	30.763	-27
Bestelako zerbitzuak	27.217	26.969	-248
Informazioa eta komunikazioa	21.090	21.531	440
Finantza jarduerak	18.833	18.036	-798
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	13.019	14.447	1.428
Jarduera artistikoak	13.077	13.777	701
Ur horniketa	5.852	5.902	50
Higiezen jarduerak	3.682	3.888	206
Energia horniketa	1.632	1.789	157
Erauzketa industriak	597	566	-30
Lurraldez kanpoko erakundeak	40	42	2

LANGABEZIA ERREGISTRATUA

Irailean, langabeziak beherakada garrantzitsua izan zuen

Langabezia erregistratua guztira

Urte arteko aldakuntza tasa



Irailean, langabezia erregistratuak urte arteko beherakada garrantzitsua (%-8,4) izan zuen, aurreko bi hileko-etako tasak hobetu zituen. Jaitsiera horrek esan nahi du aurtengo irailean Lanbideko bulegoetan iazko hileko berean baino 12.000 lagun inguru gutxiago zeudela. Kopuru horretatik, 7.000 baino zertxobait gehiago, gizonak ziren eta ia 5.000, emakumeak. Aurtengo lehen bederatzi hilekoetan, batez beste, langabeziaren jaitsiera %9,1aren ingurukoa izan da eta 13.500 pertsonakoa. Beraz, langabezia gutxitzeko erritmoa zertxobait moteltzen ari da, baina estatistika horretatik eratorritzen diren zifrak oso garrantzitsuak dira oraindik.

Langabezia erregistratua. Emakumeak


Urte arteko aldakuntza tasa



Langabezia erregistratua. Gizonak

Urte arteko aldakuntza tasa



Langabezia erregistratua. Gazteak
 Urte arteko aldakuntza tasak

Langabezia erregistratua. Atzerritarrak
 Urte arteko aldakuntza tasak



Lurraldeka aztertuta, garbi ikusten da langabeziaren jaitsiera handiagoa izan dela Gipuzkoan (%-11,2) eta zertxobait apalagoa Araban (%-8,5) eta Bizkaian (%-7,0). Beste aldetik, gazteen langabeziak oso jaitsiera erritmo esanguratsuari eutsi dio (%-13,9), biztanleria osoarena baino nabarmen biziagoa dena. Aitzitik, atzeritarrena motelagoa da (%-7,2), baina kolektibo horretako langabeen murrizketa poliki-poliki biztanleria osoaren tasetara hurbiltzen ari da. Sektoreka eginiko analisiak adierazten du beherakada handiena azken lanpostua eraikuntzan izan zuten langileen artean gauzatu zela (%-17,4), baina industriaren datua (%-10,7) ere nabarmentzekoa da. Aitzitik, zerbitzuetatik etorri ziren langabeek, talde handiena baita hori, jaitsiera txikiagoa izan zuten (%-6,9).

Langabeak			
	2016eko iraila	2017ko iraila	Aldakuntza
LANGABEAK GUZTIRA	144.116	132.046	-12.070
LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA			
Araba	23.454	21.454	-2.000
Bizkaia	81.451	75.770	-5.681
Gipuzkoa	39.211	34.822	-4.389
SEXU ETA ADINAREN ARABERA			
Gizonak	64.644	57.354	-7.290
Emakumeak	79.472	74.692	-4.780
25 urtetik beherakoak	8.891	7.653	-1.238
25 urte baino gehiago dutenak	135.225	124.393	-10.832
EKONOMIA SEKTOREAREN ARABERA			
Lehen arloa	3.063	2.662	-401
Industria	17.993	16.064	-1.929
Erakuntza	13.224	10.923	-2.301
Zerbitzuak	93.589	87.159	-6.430
Lehenago lan egin dutenak	127.869	116.808	-11.061
Lehenago lan egin ez dutenak	16.247	15.238	-1.009
ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA. ATZERRITARRAK			
Langabe atzerritarrak	22.169	20.563	-1.606

INFLAZIOA

Erregaien igoerak %1,8ra eraman du abuztuko inflazioa

KPI indize orokorra
Urte arteko aldakuntza tasa



EAEko inflazioa hamarren bat igo zen aurreko hilekoaren aldean eta % 1,8an kokatu zen abuztuan. Igoeraren arrazoi nagusia erregaien eta etxebizitzari lotutako zerbitzuen garestitzea da. Hala ere, kontsumoko prezioen igoera gaur egun motelagoa da urte hasierakoa baino, garai hartan inflazioa bizkor hazi zelako eta %3aren inguruko balioak jasotzera iritsi zelako.


KPIaren banaketa
Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2015	2016	2017ko abuztua	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	-0,3	0,0	1,8	1,8
Azpiko inflazioa (%81,8)	0,7	0,9	1,3	1,1
- Elikagai landuak (%14,3)	1,1	0,9	0,5	0,1
- Industria ondasunak (%24,5)	0,3	0,8	0,2	0,1
- Zerbitzuak (%43,1)	0,8	1,1	1,9	0,9
Hondar inflazioa (%18,2)	-4,5	-4,2	4,1	0,7
- Landu gabeko janariak (%7,8)	1,9	2,6	0,9	0,1
- Energia (%10,4)	-8,4	-8,2	6,1	0,6

Azpiko inflazioa
Urte arteko aldakuntza tasak



Hondar inflazioa
Urte arteko aldakuntza tasak



Petrolio upelaren prezioa

Dolarrak



Izan ere, erregaien garestitzeak igoarazi zituen prezioak abuztuan, iazko jaitsieraren ondoren, goranzko norabidea hartu zutelako berriro hileko horretan. Hori horrela izanda, garraioaren taldeak bizkortze handiena izan zuen uztaleko datuaren aldean eta talde inflaziogileena (%3,5) izan zen, gasolinaren eta gasolioaren salneurriak igo zirelako. Orobat, berogailuetarako gasaren garestitzearen ondorioz, etxebizitza taldearen urte arteko tasa %2,7ra iritsi zen. Aitzitik, komunikazioen tasaren moteltzea nabarmendu behar da, telefonia eta faxen zerbitzuen prezioak bere horretan geratu zirelako, 2016ko hileko berean igo ziren bitartean.


KPIaren talde nagusiak
Urte arteko aldakuntza tasak. 2017ko abuztua

	Euskadi	Espainia	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	1,8	1,6	1,5
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	0,5	0,0	1,2
Edari alkoholdunak eta tabakoa	1,6	1,7	2,2
Jantziak eta oinetakoak	0,8	0,5	0,8
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	2,7	3,3	1,8
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	-0,5	-0,5	0,0
Medikuntza	0,9	0,7	1,0
Garraioa	3,5	3,3	2,9
Komunikazioak	0,7	0,7	-1,9
Aisia eta kultura	1,4	0,7	1,3
Hezkuntza	1,6	1,0	0,5
Jatetxeak eta hotelak	2,6	2,3	2,7
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	0,2	0,6	0,8

INDUSTRIA GIROA


Industria giroak azken urteetako daturik onena erakutsi du



Industria giroaren indizea



Energia, Turismo eta Agenda Digitaleko Ministerioak egiten duen industria koiunturaren inkestaren arabera, EAEko industria giroak hobekuntza garbiko norabidea erakusten du, azken hilekoetan aldeko progresio batekin, 2016an bizi zen atzerapen txikiaren ondoren. EAEko industria alorreko enpresek igurikimen positiboak erakusten dituzte nazioarteko eta Estatuko testuinguru ekonomikoaz, eta enpresariaren artean ikuspegi baikorra oso hedatuta dago, inkesta horretan aztertzen diren aldagai guztietara hedatzen dena. Industriaren enpleguaren joeraz, aurreikuspenak balio positibotan daude eta egonkortasun handiko bilakaera islatzen dute.



Industria enpleguaren igurikimenak



Eskari zorroari buruzko iritziak**Produktu bukatuen stockari buruzko iritziak**

Industria giroaren indizearen hobekuntza eskari zorroz dituzten aurreikuspen gero eta aldekoagoetan oinarritzen da eta balio positiboetara pasatzeko puntuan dago. Beste aldetik, saldu gabe dauden amaitutako produktuen stockaren serieak goranzko ibilbidea galgatu du eta nolabaiteko egonkortasuna erakusten ari da. Orobat, indize orokorraren hirugarren osagaiak, hots, ekoizpenaren joerak, bizitasun handia islatzen du. Serie horrek, 2016ko moteltze sakonaren ondoren, goranzko ibilbideari ekin dio eta azken urteetako balio positiboak finkatu ditu.

Industria koiunturaren inkestak ekoizteko ahalmenaren erabilera mailaz ere ematen du informazioa. Argitaratu den azken datuak adierazlea %80aren inguruan egonkor dagoela jakinarazten du. Balio hori oso altu-tzat jotzen da eta inbertsio berriak egiteko beharrari lotuta egoten da.


Industria ekoizpenaren joerari buruzko iritziak**Ekoizteko ahalmenaren erabilera (%)**

NAZIOARTEKO MERKATARITZA

Nazioarteko merkataritza sendo hazi da lehen seihilekoan

Munduko esportazioen bilakaera seihilekoka

Bolumen indizea. 2005T1=100




Munduko Merkataritza Antolakundearen (MMA) arabera, aurtengo lehen seihilekoan, munduko esportazioak bolumenean, hots, prezioen eta truke tasen aldakuntzetatik zuzenduta, %4,2 areagotu ziren. Gehikuntza hori 2011ko bigarren seihilekotik lortu den handiena da eta bat dator munduko ekonomia jarduerak erakutsi duen bilakaera onarekin. Halaber, 2,7 puntutan hobetu du aurreko seihilekoko emaitza eta hainbeste espero zen nazioarteko merkataritzaren susperraldia egiaztatu du.

SALGAIEI MERKATARITZA BOLUMENEAN. SEI HILABETEKO DATUAK

	2014		2015		2016		2017
	I	II	I	II	I	II	I
ESPOTAZIOAK							
Guztira	2,2	3,4	2,6	1,2	1,0	1,5	4,2
Ipar Amerika	3,6	5,1	3,5	0,0	-0,6	1,1	4,9
Hego eta Erdi Amerika	-0,8	-1,3	-0,5	3,7	3,3	-2,7	-1,0
Europa	1,4	1,9	3,1	2,0	0,9	1,3	2,6
Asia	4,1	5,9	2,8	0,2	0,9	3,3	7,3
IMPORTAZIOAK							
Guztira	2,2	3,6	3,7	2,5	0,6	1,2	4,1
Ipar Amerika	3,4	6,0	8,6	5,1	0,2	0,6	3,9
Hego eta Erdi Amerika	-3,2	0,1	1,6	-5,2	-11,7	-7,2	0,7
Europa	2,8	2,9	3,5	3,2	3,5	2,6	1,2
Asia	2,5	3,8	2,9	3,9	0,8	2,4	8,9

Salgaien esportazioak herrialdeka. Seihilekoka

Bolumen indizea. 2005T1=100



Salmenten gehikuntza eremu nagusi guztietara hedatu zen, 2016ko bigarren seihilekoaren aldean emaitzak hobetu zituztelako. Erdialdeko eta Hegoaldeko Amerikari dagokionez, esportazioen jaitsiera 1,7 puntutan murriztu zen. Halaber, oraingo indizea 110,7an dago, 2005etik jaso duen hirugarren daturik altuena baita. Asiaren esportazioak %7,3 areagotu ziren eta beraren indizea 200etatik gora dago (maximoa da oraingoz), munduko salerosketen buruan jarraituz.


Europar Batasunean, eremu horretatik kanpora doazen salmentak indartsu suspertu ziren, euroak balioa irabazi zuen arren, eta barne salmenten apaltzea konpentsatu zuten.

EUROPAR BATASUNEN SALGAIEN ESPORTAZIOA BOLUMENEAN. Urte arteko tasak

	2014		2015		2016		2017
	I	II	I	II	I	II	I
Guztira	1,3	1,8	3,2	2,1	0,7	1,3	2,5
Europar Batasuna barne	3,7	2,9	4,0	3,2	2,8	2,4	1,7
Europar Batasuna kanpo	-2,7	-0,1	1,8	0,2	-2,6	-0,6	3,8

Salgaien inportazioak herrialdeka. Seihilekoka

Bolumen indizea. 2005T1=100



Inportazioak, berriz, %4,1 hazi ziren eta beren bilakaera eta salmentena oso antzekoak izan ziren. Hain zuzen ere, eremu nagusiek gorakadak eskuratu zituzten, aurreko datuak gaindituz. Erdialdeko eta Hegoaldeko Amerikak ere tasa positiboak berreskuratu zituen, urtebete bat eta erdiz etengabeko jaitsierak bildu eta gero. Europak bakarrik izan zuen aurreko hiruhilekoko baino erritmo motelagoa, neurri handi batean Europar Batasunetik kanpo egin zituen erosketak (%0,0) ahul bilakatu zirelako. Halere, inportazioen indizea 146,8an kokatu zen, gutxienez 2005etik inoiz izan duen altuena baita.


Iturria: Munduko Merkataritza Antolakundeak (MMA)

ELGE-REN AURREIKUSPENAK

Munduko ekonomiak indarra hartuko du epe laburrean

Munduko BPGa

Urte arteko aldakuntza tasak



Ekonomiako Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundearen (ELGE) aurreikuspen berrien arabera, munduko ekonomiaren hazkuntza 2017an %3,5ean kokatuko da eta 2018an %3,7ra igoko da. Aurreikuspen berri horiek hobekuntza txikia ekarri diete 2017ko ekainean argitaratu zirenei. Goranzko zuzenketa horren oinarrian, geografia eremu guztietara hedatzen baita, inbertsioaren, enpleguaren eta nazioarteko merkataritzaren hedatze esanguratsua dago. Hala eta guztiz ere, erakunde horrek nolabaiteko ziurgabetasuna erakusten du ekonomiaren bizitasunaren iraunkortasunaz epe ertainean.


ELGE-REN EKONOMIA AURREIKUSPENAK

	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2016	2017	2018	2017	2018
Munduko ekonomia	3,0	3,5	3,7	=	0,1
AEB	1,5	2,1	2,4	=	=
Eurogunea	1,8	2,1	1,9	0,3	0,1
Alemania	1,9	2,2	2,1	0,2	0,1
Frantzia	1,1	1,7	1,6	0,4	0,1
Italia	1,0	1,4	1,2	0,4	0,4
Erresuma Batua	1,8	1,6	1,0	=	=
Kanada	1,5	3,2	2,3	0,4	=
Japonia	1,0	1,6	1,2	0,2	0,2
Txina	6,7	6,8	6,6	0,2	0,2
India	7,1	6,7	7,2	-0,6	-0,5
Brasil	-3,6	0,6	1,6	-0,1	=


Iturria: ELGE.

AEBetako BPGa


Urte arteko aldakuntza tasak

**Euroguneko BPGa**


Urte arteko aldakuntza tasak

**Alemaniako BPGa**

Urte arteko aldakuntza tasak

**Frantziako BPGa**

Urte arteko aldakuntza tasak




Eurogunerako orain egin dituen hazkunde aurreikuspenak duela hiru hileko aurkeztu zituenak baino baikorragoak dira, Europako herrialde nagusietan bizitasun handiagoa hauteman dutelako. Perspektiba hobea horiek enplegu tasa handiagoko, moneta politika egokitzailerako eta ziurgabetasun politiko txikiagoko testuinguru batean osatu dira.

ELGEk bere txostenean hazkundearen iraunkortasuna lortzeko politika ekonomikoak ezartzeko beharra eskatzen du. Produktibitatea eta soldatak suspertuko dituzten egiturazko erreformei ematen die lehentasuna.

Txinako BPGa

Urte arteko aldakuntza tasak



EAE-KO EKONOMIA

Taula makroekonomikoa

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2016				2017	
		I	II	III	IV	I	II
BPG	3,1	3,3	3,2	3,0	2,9	2,8	2,9
Familien kontsumoa	3,1	3,3	3,4	3,1	2,9	3,0	3,0
Administrazioaren kontsumoa	2,2	2,4	2,7	0,8	3,0	2,5	1,2
Kapital eraketa gordina	3,3	3,4	3,7	3,1	3,2	2,9	2,5
Barne eskaria	3,0	3,1	3,3	2,7	3,0	2,9	2,7
Esportazioak	2,2	4,2	3,0	1,6	0,3	0,7	1,7
Inportazioak	2,2	3,9	3,2	1,3	0,4	0,9	1,4
Lehen arloa	1,6	11,6	2,8	-0,7	-7,3	2,6	-2,7
Industria	3,3	4,8	2,4	2,9	3,0	2,0	2,3
Eraikuntza	1,6	-0,3	2,7	1,9	1,9	2,1	2,0
Zerbitzuak	3,2	3,0	3,4	3,1	3,1	3,1	3,2
Balio erantsi gordina	3,1	3,3	3,1	3,0	2,9	2,8	2,9
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	3,1	3,2	3,2	2,9	3,1	3,0	3,0

Iturria: Eustat.

Aurreikuspenak. 2017ko ekaina

Urte arteko aldakuntza tasak

	2017			2017	2018
	II	III	IV		
BPG	2,7	2,6	2,6	2,7	2,3
Barneko azken kontsumoa	2,5	2,4	2,3	2,5	2,2
Familien kontsumoa	2,8	2,6	2,6	2,7	2,3
Administrazioaren kontsumoa	1,4	1,4	1,5	1,7	1,8
Kapital eraketa gordina	2,9	3,0	3,3	3,0	3,2
Barne eskariaren ekarpena	2,7	2,6	2,5	2,7	2,5
Kanpo eskariaren ekarpena	0,0	0,0	0,1	0,0	-0,2
Lehen arloa	-6,3	-7,8	-6,0	-4,4	-10,2
Industria	2,6	2,5	2,7	2,5	2,7
Eraikuntza	1,9	2,0	2,2	2,0	1,6
Zerbitzuak	2,9	2,9	2,8	2,9	2,4
Balio erantsi gordina	2,7	2,7	2,7	2,7	2,4
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	2,8	2,6	2,5	2,7	2,0
Enplegua	1,9	1,9	1,7	1,9	1,5

Iturria: Ogasun eta Ekonomia Saila: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

EAEko ekonomiarako aurreikuspenak

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			BPG	
	2017	2018		2017	2018
Confebask	3,0	—	BBVA	2,8	2,9
CEPREDE	2,7	2,4	Funcas	2,8	—
Laboral kutxa	2,9	2,7	Hispalink (BEGren aldakuntza)	2,7	2,4

Iturria: CEPREDE (2017ko iraila), BBVA (2017ko maiatza), Confebask (2017ko uztaila), Laboral Kutxa (2017ko uztaila), Funcas (2017ko maiatza) eta Hispalink (2017ko uztaila).

ESPAINIAKO EKONOMIA

Taula makroekonomikoa

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2016				2017	
		I	II	III	IV	I	II
BPG	3,2	3,4	3,4	3,2	3,0	3,0	3,1
Kontsumo pribatua	3,2	3,6	3,4	3,0	3,0	2,5	2,5
Kontsumo publikoa	0,8	1,7	0,7	0,8	0,0	0,5	1,3
Kapital finkoaren eraketa gordina	3,1	4,3	3,4	2,6	2,2	3,9	3,4
- Aktibo finko materialak	3,1	4,4	3,4	2,7	2,2	3,9	3,4
- Eraikuntzan	1,9	2,3	1,8	1,6	1,9	2,9	3,0
- Ekipamendu ondasunetan	5,0	7,4	5,7	4,2	2,6	5,4	4,1
- Jabetza intelektualaren produktuak	2,9	4,0	3,2	2,0	2,4	3,8	2,9
Nazio eskaria (ekarpena)	2,8	3,5	2,9	2,5	2,2	2,3	2,4
Esportazioak	4,4	3,8	6,5	2,9	4,4	7,3	4,5
Inportazioak	3,3	4,5	5,4	1,0	2,3	5,7	2,8

Iturria: INE.

Espainiako ekonomiarako hainbat aurreikuspen

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			BPG	
	2017	2018		2017	2018
AFI	3,1	2,8	Intermoney	3,1	2,7
Axesor	3,1	2,8	Repsol	3,2	3,0
BBVA	3,3	2,8	Santander	3,2	2,7
Bankia	3,3	3,0	Solchaga Recio & asociados	3,1	2,7
CaixaBank	3,1	2,7	BATEZ BESTE	3,1	2,7
Cemex	3,1	2,7	Gobernua (2017-07)	3,0	2,6
CEEM-URJC	3,1	2,7	Espainiako Bankua (2017-06)	3,1	2,5
CEPREDE-UAM	3,1	2,5	Europar Batzordea (2017-05)	2,8	2,4
CEOE	3,2	2,7	NDF (2017-07)	3,1	2,4
FUNCAS	3,1	2,7	ELGE (2017-06)	2,8	2,4
ICAE-UCM	3,1	2,6	The Economist (2017-09)	3,1	2,7
IEE	3,3	2,7	Consensus Forecast (2017-09)	3,1	2,6

Iturria: FUNCAS, Ekonomia eta Ogasun Ministerioa, CEPREDE, ELGE, NDF, Europar Batzordea, The Economist eta Consensus Forecast. AFI: Analistas Financieros Internacionales; ICAE-UCM: Instituto Complutense de Análisis Económicos-Madrileko Unibertsitate Konplutentse; ICO: Instituto de Crédito Oficial; IEE: Instituto de Estudios Económicos; IFL-UC3M: Flores de Lemus Institutua-Carlos III Unibertsitatea Madril; NDF: Nazioarteko Diru Funtsa; ELGE: Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea.

NAZIOARTEKO EKONOMIA

Hazkunde ekonomikoa

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2016				2017	
		I	II	III	IV	I	II
AEB	1,5	1,4	1,2	1,5	1,8	2,0	2,2
Txina	6,7	6,7	6,7	6,7	6,8	6,9	6,9
Japonia	1,0	0,5	1,0	1,0	1,7	1,4	1,6
Kanada	1,4	1,3	1,1	1,5	2,0	2,3	3,7
Europar Batasuna	1,9	1,8	1,9	1,9	2,0	2,1	2,4
Eurogunea	1,7	1,7	1,7	1,7	1,9	2,0	2,3
Alemania	1,9	1,8	1,9	1,9	1,9	1,9	2,1
Frantzia	1,2	1,2	1,2	0,9	1,2	1,1	1,8
Erresuma Batua	1,8	1,6	1,7	2,0	1,9	2,0	1,7
Italia	0,9	1,1	0,8	0,9	1,2	1,2	1,5
Herbehereak	2,2	1,6	1,9	2,4	2,7	2,6	3,8

Iturria: Eurostat, BEA eta ELGE.

Consensus Forecast. 2017ko iraila

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2017	2018	2017	2018	2017	2018
AEB	2,2	2,4	2,0	1,9	4,4	4,2
Japonia	1,6	1,2	0,5	0,8	2,8	2,7
Kanada	3,0	2,1	1,6	1,9	6,5	6,4
Europar Batasuna	2,1	1,9	1,7	1,6	—	—
Eurogunea	2,1	1,8	1,5	1,3	9,2	8,7
Alemania	1,9	1,9	1,7	1,6	5,7	5,6
Frantzia	1,6	1,6	1,0	1,1	9,3	8,9
Erresuma Batua	1,6	1,4	2,7	2,6	4,6	4,8
Italia	1,3	1,1	1,4	1,2	11,3	10,9
Herbehereak	2,9	2,1	1,4	1,4	—	—

Iturria: Consensus Forecast.